

TORREATZE

Udaltzaingoko bi langilek jasan duten erasoaldi larria dela eta, LAB sindikatuak adierazpen hauek egin nahi ditu:

- 1.- Lehenik eta behin, gure erabateko babes eta elkartasuna adierazi nahi diegu gure udaltzaingoko langileei, eta horrekin batera izan dituzten zauriak lehenbailehen sendatzea opa diegu.
- 2.- Udaltzaingoko burutzari eta gobernu taldeari eskatzen diegu berma ditzatela udaltzainen lan-baldintzak aurreikus litezkeen egoera delikatuetan, arrisku fisiko eta juridiko ahalik eta txikienekin egin dezaten lan.
- 3.- Torreatze inguruan gertatzen ari diren mugitze arazoak direla eta, arazoa konpontzeko beste neurri batzuk hartu behar lirateke, esaterako, Torreatze eta Donibane kalearen sarreran dauden pibote hidraulikoak abian jartzea; neurri horrek lagunduko bailuke arazoa konpontzen.
- 4.- Gobernu taldeari eskatzen dio LABek bi langile horien esku jar ditzala ahal dituen baliabide guztiak lehenbailehen onera daitezen, eta halaber jar ditzala baliabide juridikoak egokitzat jotzen diren neurriak aurrera eramateko.
- 5.- Gobernu taldeari eskatzen diogu akusazio partikular gisa pertsona dadila, hartu beharra egon litekeen egintza judizialean.

Pasaian, 2015eko maiatzaren 12an